

*Herrietako elkarteetan
hizkuntz plangintzaren
metodologiaren erabilpena
hedaturik ez dagoela
abiapuntuko hipotesizat
hartuz, hori noraino ote den
egia aztertzea du helburu
lan honek.*

*Horretarako, lehenik
plangintzaren kontzeptu
orokorra definitzen du,
ondoren, hizkuntz
plangintzaren kontzeptua
zehazten du eta, azkenik,
hainbat Elkarteren
egitasmoak guk garatutako
plangintza-eskemarekin
alderatuz, hipotesiaren
zuzentasuna frogatzen du.
Emitzetatik jaso
daitezkeen ondorioak
azalduz eta zenbait
proposamen eginez amaitzen
du lanak.*

HIZKUNTZ PLANGINTZA HERRIETAKO ELKARTEETAN. AZTERKETA KONPARATIBOA

J. Inazio Marko Juanikorena
UEUko Soziolinguistika Sailburua

1. LANAREN ABIAPUNTUA EDO HIPOTESIA

Herrietako elkarteen iharduerei buruzko hainbat hitzaldi, elkar hizketa eta esperientzi-trukaketaren ondoren, honako lan-hipotesia egiten dugu: *Udalerrri mailako euskararen berreskurapenaren aldeko lanetan euskara elkarte sormenak aurrerapausu nabarmena suposatu badu ere eta elkarte hauek lanaren sistematizazioan asko aurreratu badute ere, oraindik orain Elkar-teek, oro har, ez dute bere iharduera hizkuntz plangintzaren metodologia eta tekniken arabera antolatatu.*

2. PLANGINTZAREN KONTZEPTU OROKORREKIKO HURBILKETA. «X-GAUZAREN ESTATUSAREN ERALDAKETARAKO PLANGINTZA» KONTZEPTUA

2.1 ADIBIDE BAT

Hizkuntz plangintza zer den azaltzen hasi aurretik, egoki iruditu zaigu lehenik «Plangintza»ren kontzeptua bere orokortasunean azaltzea. Horretarako, eta «X-Gauzaren Estatusaren Eraldaketarako Plangintza»z orokorrean zer ulertzen dugun azaltzeko, situazio bat asma-

tu dugu adibide gisa; honako hau:

Eman dezagun herrixka bat. Herri honetako biztanleek ez dute inoiz urarekin arazorik eduki, baina azken urteotan uda parte iritsi ahala poliki-poliki urik gabe gelditzen dira, batez ere Goiko- kalean non goizetik gaueko bitarte horretan ez dute jadanik ur tanta bat ere jasotzen.

Herritarren lehenengo erreakzioa marmarka eta protestaka hasia izan da: udalaren aurka, aldameneko herrien aurka edota agintzrien aurka kexu. Kexu bai, baina bere protesta hori norabidetu gabe. Azkenean, arazoa larriki nozitzen ari diren Goiko-kaleko bizilagunak euren artean biltzen hasi dira bere arazo eta protesta denak batera bideratzeko eta ondoren Udala presionatu dute, gaia aztertuko duen auzokide eta udal ordezkariak osatutako Batzorde Berezi bat eratzea lortzen dutelarik.

Batzorde honek egin duen lehen gauza, ura eskasiaren zergatiak ongi ezagutzeko azterketa bat izan da. Azterketa honek zera argitu du:

- *Herriak ez du iturri propiorik. Garai batean bazuen, baina galdu egin zuen iturria jaiotzen deneko lur saila alboko herriari saltzerakoan.*
- *Ura aipatu iturri hortatik hartzen dute bi herriek, baina azken urteotan alboko herria ikaragarri hazi da, eta orain iturriko ia ur guztia berak erabiltzen du.*
- *Gure herriak ez du ura almatzenatzeko depositarik.*
- *Azkenik, tuberi edo hodi-instalakuntza erabat zaharkitua dago eta uraren erdia etxeetara iritsi aurretik bidean isurtzen da.*

Egoeraren nondik norakoak ezagututa, Batzorde Berezia bildu eta bertan halako proposamenak mahaigaineratu dira:

- *Herriak bere protesta gogorrena zuzentzea Instituzio nagusien aurrean arazoa konpon dezatela exigituz.*
- *Alboko herriarekin akordiotara iritsi ura banatzeko. (Baina horretarako albokoak konbentzitu behar, gauza zaila eskasia garaian).*
- *Hodi guztiak berritu ura ez galtzeko. (Baina hori eginez gero, sos guztiak bertan zahutuko lirateke, beste ezer egiteko dirurik gabe geldituz).*
- *Depositua edo presa moduko bat egin ura biltzeko. (Baina, aurrekoan bezalaxe, horretan sos guztiak zahutuko lirateke).*
- *Herritarrei uraren zergak laukoiztu. (Baina hori ez da herritarren oso gustokoa izango).*
- *Ura erosi beste nonbait. (Baina hori ere garestia da eta ez du betirako irtenbiderik eskaintzen).*
- *Kontsumoa mugatu edo arrazionatu eta herritarrak sentsibilizatu*

**«Lan-hipotesia: oraindik orain Elkar-
teek, oro har, ez dute
bere iharduera hiz-
kuntz plangintzaren
metodologia eta tek-
niken arabera anto-
latu»**

**«Errealitatea al-
dakorra da, dina-
mikoa. Geuk eragi-
ten ez badugu gure
eskuetatik at dauden
beste faktoreek
eragingo dute bera-
rengan»**

gutxiago gasta dezaten.

- Herritarrak bildu eta aldameneko herrira joan etxez etxe ur eske.

Batzorde Berezia mahai gaineratutako proposamen guztiak aztertu ditu eta beharren eta ahalemen arabera lehentasun batzuk finkatu, eta horien araberrako egite edo lan batzuk bideratzea ere erabaki du:

- Lehentasuna dute egarritz ez hiltzeak eta lehen mailako beharrak asetetzeak. Horretarako, probisonalki ura zisternatan ekarriko da.

- Arazoa konpontzeko laguntza behar da, batez ere dirua. Horregatik, Instituzioei egoeraren larritasuna ezagutarazi eta laguntza eskatuko zaie.

- Ur gutxi dagoenez, ezin da alferrik gastatu. Horregatik, hurrengo lana hodiak konpontzen hasia izango da. Lana merkeago atera dadin, auzolanean egingo da, piskanaka eta Goiko-kaletik hasiz.

- Datozen urteetako eskasiak ekiditea izango da hurrengo lana. Horretarako, behineko depositu txiki bat eraikiko da, negu partean bete eta udarako ura egon dadin.

- Etorkizuna ziurtatzea izango da azken lana. Horretarako, epe luzera begira azterketa sakonagoa egitea erabakitzen da, behin hurbileko beharrak nolabait konpondu ondoren, geroari behar bezala erantzun ahal izateko.

Azkenik, egin beharreko lan guztiak zehaztu eta erabaki ondoren, hartutako erabaki horiek bideratzen hasi da Batzorde Berezia.

2.2 PRINTZIO OROKORRAK

Hemen marraztu dugun egoera hau X-Gauza baten estatusaren (egoeraren) eraldaketarako Plangintza baten adibidea dugu. Situazio honetatik ondoriozta ditzakegu halako printzipio nagusi batzuk, edozein estatusaren eraldaketa-plangintzarako amankomunak direnak:

1. Errealitatea aldakorra da, dinamikoa. Geuk eragiten ez badugu gure eskuetatik at dauden beste faktoreek eragingo dute berarengan. (Gure adibidean, utzikeriak uraren eza ekarri du).

2. Errealitate hori aldatzeko norbaitek hartu behar du inizatiba eta erabakia, gune eragile bat sortuz. (Gure kasuan, Goiko-kalekoek inizatiba hartu dute eta presionatu Batzorde berezia osatu den arte).

3. Errealitatea eraldatzeko, Gune eragile horrek berarengan eragin beharko du, egoki irizten dituen bitartekoak eta moduak erabiliaz. (Gure adibidean, azterketa eta ondorengo proposamenak).

2.3 X-GAUZAREN ESTATUSAREN ERALDAKETARAKO PLANGINTZAREN DEFINIZIOA

Azpimarratu ditugun puntu nagusi hauek jarraikiz, horrela definituko genuke X-Gauzaren Estatusaren (egoeraren) Eraldaketarako Plangintza:

X-Gauzaren Estatusaren Eraldaketarako Plangintza, aldez aurretik erabakitako interbentzio edo esku harte kontziente baten bidez eta egoera berri bat lortu asmoz, aldatu nahi den gizarte (ekonomia, produkzioa edo beste edozein alorretako) egoera jakin baten gain metodikoki eragitea da.



Hau da, metodo baten bidez gustokoa ez dugun edo kalte egiten digun "X" egungo egoerarengan eragitea, "Y" egoera berri bat lortzeko.

2.4 X-GAUZAREN ESTATUSAREN ERALDAKETARAKO PLANGINTZAREN ATALAK

Plangintzak hiru elementu edo osagai nagusi ditu: plangintzaren **Subjektua**, plangintzaren **Objektua** eta plangintzaren **Metodoa**. Osagai hauek plangintzaren **oinarriak** deituko ditugu.



«Plangintza, aldez aurretik erabakitako interbentzio edo esku hartze konziente baten bidez eta egoera berri bat lortu asmoz, aldatu nahi den gizarte (ekonomia, produkzioa edo beste edozein alorreko) egoera jakin baten gain metodikoki eragitea da»

Plangintzaren **Subjektua**: Egoera bat eraldatzeko ardura hartzen duen agente aktiboa da plangintzaren subjektua, plangintza bideratzen duen hori. Gure adibidean, Goiko-kalekoen inizatibaz osatu den Batzorde Berezia.

Plangintzaren **Objektua**: Eraldatu nahi den egoera da plangintzaren objektua. Gure adibidean, ur eskasia herrian.

Plangintzaren **Metodoa**: Plangintzaren subjektuak objektua eraldatzeko erabiltzen dituen tresnak, hartzen dituen erabakiak eta bideratzen dituen lanak ditugu plangintzaren metodoa. Gure adibidean, lehenengo azterketa, ondorengo proposamenak, finkatutako lehentasunak, erabakitako lanak, etabar.

2.5 X-GAUZAREN ESTATUSAREN ERALDAKETARAKO PLANGINTZAREN URRATSAK

Estatusaren eraldaketarako plangintza baten atalkako urrats nagusiak honako hauek dira:

1. Subjektua:

Gune eragilea osatu; hau da, egoeraren aldaketaren ardura bere gain hartu, plangintza prestatu eta prozesua bultzatuko duen gunea.

2. Objektua:

Gure abiapuntua ezagutu; hau da, "X" delakoaren ezaugarriak eta egoera.

Gure helmuga zein den finkatu; hau da, "Y" delakoaren ezaugarriak nolakoak izan daitezen nahi dugun.


3. Metodoa:

Gure ahalmenak kontutan hartu; hau da, "Y" lortu ahal izateko "X"engan eragiteko ditugun indarrak.

Lehentasunezko eginkizunak aukeratu; hau da, finkatu dugun helmugara iristeko lehentasuna duten lanak.

Egitekoak zehaztu; hau da "X"etik "Y"ra iristeko egin beharreko lanak, berrikuntzak, iharduerak eta beste.

Atal guzti hauek lotuak daude, bata bestearengan eragiten dutelarik.




2.6 PLANGINTZAREN IZAERA DINAMIKOA

Atal honi amaiera emateko, aipa dezagun X-Gauzaren estatusaren eraldaketarako plangintzaren beste ezaugarri bat: progresioa, alegia. Errealitatea bera bezalaxe, plangintza ere gauza dinamikoa. Beraz, plangintzaren aplikazioaren ondorioz, "X" egungo egoeraren "Y" egoera berri-rako urratsa ematen dugunean, "Y" zena "X1" egoera erreal berria bihurtzen zaigu.

Plangintzaren hurrengo fasea "X1" honen gain diseinatu beharko dugu, eta "Y1" egoera berria lortzeko helburuarekin plangintza aplikatu ostean "X2" egoera erreal berria lortuko dugu, zeinaren gain plangintzaren hurrengo fasea diseinatu beharko dugun, ... etabar.

Bilakaera honetan koka dezakegu X-Gauzaren estatusaren eraldaketarako plangintzan berebiziko garrantzia duen beste elementu bat: ebaluaketa. Ebaluaketa ezinbestekoa zaigu lortu dugun "X1" errealitate berria eta guk alde aurretik lortu nahi genuen "Y" helmugaren artean zein alde dagoen ezagutzeko; alderaketa hau izango baita plangintzaren hurrengo fasearen oinarria edo abiapuntua.



1) Iñaki Arruti. (1993). Hizkuntz Plangintza eta berreskurapenerako lehentasunak in *Euskara Hernanin*. Dobera Euskara Elkarte. Hernani.

3. HIZKUNTZ PLANGINTZAREN KONTZEPTUA. EUSKARAREN ESTATUSAREN ERALDAKETARAKO PLANGINTZA

3.1 EUSKARAREN ESTATUSAREN ERALDAKETARAKO PLANGINTZAREN DEFINIZIOA

Ikusi dugunez, plangintza gizartearen edozein alorri egoki dakioko, baita ere guri axola digun hizkuntzaren normalizazio prozesuari. Zentzu horretan, plangintzaren kontzeptu orokorarentzat definitu ditugun printzipio nagusiak kontutan hartu beharko dira berdin berdin hizkuntz plangintzan.

Euskararen estatusaren eraldaketarako plangintza deituko duguna definitzeko, Iñaki Arrutiren hitzak dakartzagu hona. Arrutiren esanetan «euskara ez da berez, bere kasa normalizatuko. Hizkuntza gutxiagotuen egoera normalizatzea, modu kontziente eta planifikatu baten bidez garatutako prozesua da». Horren arabera, horrela definitzen du Arrutik guk Euskararen Estatusaren Eraldaketarako Plangintza deitu duguna: «*Hizkuntz Plangintzak hizkuntz errealtate bat aldatzea du helburu eta aldaketa hori metodo baten bidez, hau da, era sistematizatu eta iraunkor baten bidez egiten du*».¹

3.2 «OINARRIAK» EUSKARAREN ESTATUSAREN ERALDAKETARAKO PLANGINTZAN

Subjektua Hizkuntz Plangintzan:

Esan bezala, euskara ez da bere kasa normalizatuko eta geuk eragiten ez badugu, beste faktore batzuk izango dira berarengan eragingo dutenak; txarrera eragingo dutenak, ziur aski. Gure kasuan, plangintzaren subjektua (plangintza bideratzearen inizatiba eta ardura hartuko dutenak) Herrietako Euskara Elkarteak ditugu. Ez gara honetan luzatuko, bakarrik esan asko aurreratu dugula arlo honetan herriz herriko esperientzia eta aportazio teorikoei esker.

Objektua Hizkuntz Plangintzan:

Eraldatu behar duguna, beraz gure plangintzaren objektua izango dena, zera da: euskararen egoera edo estatusa Udalerri mailako gizartean orohar eta giza-esparru ezberdinetan. Objektu honek maila ezberdinak ditu: udalerrriaren gizartea bere osotasunean, udalerrriaren sektore ezberdinak, erakunde jakinak, ...

Metodologia Hizkuntz Plangintzan:

Estatusaren eraldaketarako plangintzaren urrats nagusi berberak jarraituko ditu hizkuntz plangintzak; gehiago zehaztuak, noski, eta objektuaren maila ezberdinei egokituak.

3.3 HIZKUNTZ PLANGINTZAREN MAILAK ETA URRATSAK

Maila estrategikoa:

Herriaren egoeraren azterketatik abiatuz eta datuak zein gure ahalmenak gurutzatu ondoren, jorratu beharreko lehentasunezko sektoreak zeintzuk diren eta hauetan zein helburu nagusi lortu nahi ditugun erabakitzen dugunean plangintzaren maila estrategikoa ari gara lantzen. Beste era batean esanda: herriaren zein arlo edo sektore landuko ditugun nagusiki datozen urteetan.


Maila operatiboa:

Elkarteak landuko dituen sektore estrategikoak eta hauetan lortu nahi dituen helburu nagusiak finkatu ondoren, hauetako bakoitzean urtez urte garatuko dituen programa zehatzak osatzen dute plangintzaren maila operatiboa.

Mikroplangintza aplikatua:

Sektore batetan erakunde/elkarte ezberdinak daudenean eta elkarte horietako bakoitzarentzat plangintza zehatz eta berezia prestatzen denean. Banakako erakundeei bereziki egokitutako plangintzak.

«Errealitatea bera bezalaxe, plangintza ere gauza dinamikoa. Beraz, plangintzaren aplikazioaren ondorioz, "X" egungo egoeraren "Y" egoera berrirako urratsa ematen dugunean, "Y" zena "X1" egoera erreal berria bihurtzen zaigu»



4. EUSKARAREN ESTATUSAREN ERALDAKETARAKO PLANGINTZA HERRIETAKO ELKARTEETAN

4.1 DATUEN ITURRIA ETA METODOLOGIA

Lan honen aurreko ataletan plangintzaren kontzeptu orokorra eta euskararen estatusaren eraldaketarako plangintzaren definizioa, mailak eta urratsak azaldu ondoren, atal honetan hainbat Herrietako Elkartearen egitasmoak jaso eta geure plangintza-eskemarekin alderatu ditugu.


Guztira 22 herrien berri edo erreferentziak jaso eta 25 dokumentu edo txosten aztertu ditugu. Eranskinean doa herrien zerrenda.

Aipatu 22 herri horietatik, 7 herritan ez dago egitasmo idatzirik, beste 15etan bai badago. Honek esan nahi du aztertutako kasuen %31,8an plangintzarik ez dagoela.



Alderaketa egiteko jarraitu dugun metodologia honako hau izan da: hasteko, euskararen estatusaren eraldaketarako plangintzaren eskeman zehaztutako urratsak zabaldu ditugu taula batetan; ondoren, herrietako elkarten txostenen edukia kategoria ezberdinetan laburbildu dugu eta, azkenik txostenen edukien kategoria horiek plangintzaren eskemaren taulan sailkatu ditugu, urratsen arabera. (*Ikus taula hurrengo orrian*).

«Aztertutako kasuen %31,8an plangintzarik ez dago»



- (A4)1: Helburu nagusiak elkarrearen garapenari buruzkoak
- (A5)1: Lan taldeen zehaztapena
- (A5)2: Lan taldeen eginkizunen zehaztapena
- 1(B3): Urteko helburu nagusien zehaztapena
- 1(B3)1: Urteko helburuak elkarrearen garapenari buruzkoak

4.2 ELKARTEEN EGITASMOEN AZTERKETAREN EMAITZA

Herrietako elkarteen txostenen eta plangintzaren eskemaen arteko alderaketaren emaitzak honako hauek dira:

1. Geure plangintzaren eskeman jaso ez ditugun urrats edo kategoria berriak azaldu zaizkigu elkartearen txostenetan (parentesi artean daudenak). Kategoria berri guzti horiek, bat salbu, 1(B3), elkartearen egitura edo garapenari dagozkie: lan taldeak, elkartearen sustapena, ...
2. Ez dago elkarte edo txosten bakar bat ere mikroplangintza aplikatuaren maila landu duenik.
3. Plangintzaren eskemaren urrats gustiak jarraitzen duen txostenik ez dago, bakar batzuetara mugatzen dira.
4. Txosten edo egitasmo hauek ez dira lehentasunen aukeraketatik abiatzen. Lehentasunen azterketarik ez da egiten, kasu bakarraren batean salbu.
5. Txostenek nagusiki maila operatiboan dihardute, estrategikoan baino gehiago.
6. Txosten hauen edukia, nabarmenki, bi kategorietan landu da:
 - Ekintzen edo ihardueren antolaketa.
 - Elkartearen beraren garapena.

5. ONDORIO ETA PROPOSAMENAK

5.1 ONDORIOAK

Euskararen estatusaren eraldaketarako plangintzaren eskema eta herrietako elkartearen egitasmoen alderaketaren emaitzak ikusi ondoren, onako ondorioak azpimarratu nahi genituzke:

1. Lan honen abiapuntu gisa agertu dugun hipotesia zuzena da. Frogatuta gelditzen da ez dutela elkarteek, oro har, bere iharduera hizkuntz plangintzaren metodologiaren arabera antolatzen.
2. Herri mailako euskalgintzan subjektua asko landu eta garatu da. Objektua eta metodologia, berriz, ez. (Honek ez du esan nahi azken urteotan arlo honetan ere asko aurreratu ez denik).
3. Susmoa dugu ez ote ari garen planoak nahasten. Ihardueraren, egitekoen abiapuntua eta erreferentea errealitatea (objektua) da; horri begira eta horren arabera behar da lana antolatu. Baina, badirudi askotan ez dela horrela gertatzen: elkarteetan, orokorrean, iharduera eta

«Herri mailako euskalgintzan subjektua asko landu eta garatu da. Objektua eta metodologia, berriz, ez»


«Iruditzen zaigu badagoela jarrera honetan arrisku handi bat, "garapen endogamikoa" deituko duguna»

lanaren abiapuntua eta erreferentea elkarte (subjektua) bera izan ohi da.

4. Elkarteetan oso zabaldurik dagoen lan estiloa honako hau da: elkarte (subjektua) eratu, lan talde batzuk sortu, lan talde horiei eginkizun bat eman eta, ondoren, lan taldeek bideratzen dutenaren arabera lan egin; nagusiki, elkarte eta lan taldeen garapenari begira.

5. Iruditzen zaigu badagoela jarrera honetan arrisku handi bat, «garapen endogamikoa» deituko duguna: errealitatearen (objektuaren) abstrakzioa eginez, ihardueraren abiapuntua eta helmuga elkarte (subjektua) bera bihurtzea, eta horrekin:

- batetik, iharduerak mediatizatzea iparra galduaraziz, eta
- bestetik, elkarte bere buruaren autoerreproduzio eta garapen lanetan murgilduz praktikan horretara mugatzea.



5.2 PROPOSAMENAK

Gure azterketak eman dizkigun ondorioek garbi asko adierazten digute erren gaudela oso hizkuntz plangintzari dagokionez. Defizita hori gainditzeko honako hau proposatzen dugu:

1. Elkarteetan lan talde bat osatu bereziki plangintzaren prestaketarako. Lan talde honen eginkizuna plangintzaren diseinua prestatzea, elkarteari aurkeztea, aplikazioaren jarraipena egitea, urtearen buruan balantzea egitea (balantzea hasiera jarritako helburuen baitan) eta emaitzen araberako plangintza berria prestatzea izango da.
2. Arreta handia jarri eta moduak egin elkarteetako partaideek formakuntza teknikoa ukan dezaten.
3. Guzti honek badu, hala ere, arrisku handi bat kontuan hartu beharko dena ekidin ahal izateko, hau da, elkartearen barruan kasta ezberdinak sortzearena: prestakuntza teknikoa dutenak batetik (gidariak) eta formakuntza espezifikorik ez duen masa (jarraitzaileak) bestetik.

Herrien eta txostenen zerrenda

Sasiburu:	izenik gabeko txostena
Dobera:	94. urterako egitasmoa
Laixan:	94. urteko iharduera programa
Berbaro:	izenik gabeko txostena
Idolaz:	94ko programa
Ai Geala:	94. ekitaldirako egitasmo-laburpena
Ttakun:	94. urterako egitasmoa 94rako aurregitasmoa, ardatz nagusiak 93rako egitasmoa 92rako egitasmoa
Beinke:	izenik gabeko txostena
Jardun:	92rako asmoak
Bagera:	94. urteko plangintza 93. urteko plangintza
Izarra:	94. asmoak eta aurrekontua 93. urteko asmoak eta aurrekontua
AED:	Elkartearen jarduera eta norabidea dato- zen urteoi begira 92. urteko jarduera txostena
Lau Haizetara:	94. egitasmoa
Galtzaundi:	Filosofia orokorra eta 91. urterako egitas- moa 92.eko egitasmoa 93ko egitasmoa 94.eko egitasmoa
Mungia:	izenik gabeko txostena 91 asmo eta iharduerak
Portumintzo:	txostenik ez
Deustu:	"
Erandio:	"
Urduliz:	"
Lainomendi:	"
Euskal Birusa:	"
Legazpiko Euskal Txokoa:	"